01 13
ANDOIN MAGALEKO MUGIMENDUA


Magaleko mugimenduak maldan dauden lur edo harkaitz masei dagokien grabitatearen indarrak eragindako leku-aldatzeak dira. Bertan hainbat faktorek eragiten dute, besteak beste; maldaren inklinazioa, estratuen antolaketa eta haien iragazkortasun desberdina. Haren eraketan urak, higadurak, lurrikarek, estaldura begetalaren galerak, jarduera antropikoak, eta abar hartzen dute parte. Andoinekoa bezalako labainketa –magal mugimendu mota bat- ematen da egonkorra ez den lur masa garrantzitsu bat magaletik labaintzen denean, masa egonkorretik guztiz askatu gabe.

Mugimendua 1960eko hamarkadan gertatu zen, Andoin hiru guneko hegoaldetik 1.100 metrora (Asparrena udalerria) eta Entzia Mendilerroko ipar isurialdeko 68.000 m2 inguruko hedadurari eragin zion.


Toberia izeneko ibaiaren ekialdeko isurian eman da. Ibai horrek aurrera egiten du aipatutako mendilerroarekiko norabide perpendikularrean, Mendilerroko goi aldea eratzen duen 75 metro inguruko altuera duen malkar baten oinean.

Litologiari dagokionez, antzinako lurralde kolubial ugari dauden zonalde bat da, bloketan antolatuta, eta horietan gertatu berri diren higakin koladak instalatuz joaten dira.


Gehiago jakiteko: CORRAL, C.; ALONSO, J. 1988. Movimientos de ladera en la vertiente norte de la Sierra de Entzia (Andoin, Álava)... Naturaren Arabako Erakundearen Azterlanak, 3, 7-26.



Labainketaren kokapena Entzia Mendilerroan, Toberia ibaiaren ekialdeko magalean (lur-jauziak eratzen diren zonalde batean), Andoin hiri gune txikitik metro gutxira (Asparrena udalerria). Ortoargazkia 2015.+MDT. Fuente Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; Google Earth.



Ortoargazkia 1984-1985. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. UTM 30N ETRS89 // X: 560484 m // Y: 4744435 m // Z: 796 m (puntu gorria).



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Iparraldean Andoin hiru gunea ikus daiteke.